

EA 21 IKASTETXEKO DIAGNOSTIKOA 14-15

ELIKADURA JASANGARRIA

ONDORIOAK	IKASLEEN PROPOSAMENAK	HARTUKO DIREN NEURRIAK
<p>Ikasleen inkesta 650 ikaslek bete dute. Ikasle askok (DBHn batez ere) ez dituzte inkestak azaltzen diren hainbat kontzeptu ezagutzen:elikadura jasangarria,elikagai ekologikoa,elikagai transgenikoak.....</p> <p>Ikasleen erdiek edo badakite etxean jaten dutena nondik datorren eta non erosten duten ere.</p> <p>Ikasle gehienak baloratzen dute bertako produktuak, sasoikoak, ekologikoak kontsumitzea (%85).</p> <p>Ikasle gehienak ez dute ondo ikusten janaria botatzea.</p> <p>Gosaria.Ikasle batzuk, % 16k ez dute inoiz gosaltzen, % 77k egunero eta besteak batzuetan.Gosariak nahiko orekatu eta osatuak dira.</p> <p>Ikasle gehienak ekartzen dute hamaiketako institutura.</p> <p>Hamaiketakorako ekartzen dutena nahiko</p>	<p>Ezagutzen ez diren kontzeptuak klasean azaltzea</p> <p>Ondo gosaltzea eta hamaiketako osasuntsua sustatzea ikastetxeko partaideen artean</p> <p>Ikasleak bultzatu hamaiketako ekartzean hondakin ahalik eta gutxien sortzea.</p> <p>Elikadura jasangarriaren inguruko informazioa zabaldu ikastetxeko partaideen artean</p>	<p>Elikadura jasangarriaren ezaugarriak edo irizpideak landu ikastetxean (curriculumean) eta hauen garrantzia azpimarratu.</p> <p>Gosaria eta hamaiketakoaren garrantzia azpimarratu. Honen inguruko informazioa zabaldu tutoretza batean.Gosari eta hamaiketako osasuntsu eta jasangarria nolakoa den. Web orrian jarri eta , etxera ere bidali informazio hau.</p> <p>Honekin sentsibilizatzeko eta praktikan jartzeko hamaiketako osasuntsua eta jasangarria antolatu ikastetxean. Bertako produktuei lehentasuna eman.</p> <p>Ikasleak bultzatu hamaiketako ekartzean hondakin ahalik eta gutxien sortuz. Bildukinak banatu horretarako eta animatu horiek erabil ditzaten. Bildukin hauek iazko kurtso amaieran Foru Aldundiak banatu zituen.</p>

<p>orekatua da. Hauetatik batzuk (%40) tuper edo bildukin birerabilgarrian ekartzen dute.</p> <p>Ikastetxeko partaide helduei pasatutako inkesta 100 pertsonen bete dute (anonimoa zen eta ez dakigu bete dutenak zein ziren, irakasle, guraso edota langile ez irakasle).</p> <p>Hauexek dira ondorioak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Jende gehienak garrantzitsua ikusten du elikagai ekologiko, sasoiak, bertakoak kontsumitzea eta sarritan, ez beti, horiek erabiltzen dituzte. -Industrialki prestatutako jaki gutxi kontsumitzen dute. -Erosketa nagusia auzoko dendetan, sarritan egiten dute %50ek edo. -Jana botatzeak asko kezkatzen ditu, denak. 	<p>Ez dute proposamenik egin</p>	<p>Elikadura jasangarriaren inguruko informazioa Web orrian jarri eta etxera bidali. Gosari eta hamaiketako osasuntsu eta jasangarriaren garrantzia ere azpimarratu.</p>
--	----------------------------------	--